

A large, stylized red apple with a small stem and leaf, centered in the upper half of the page. Inside the apple, the text 'SAGARDOAREN LURRALDEA' is written in a bold, sans-serif font. 'SAGARDOAREN' is in green and 'LURRALDEA' is in white.

SAGARDOAREN LURRALDEA

el territorio de la sidra

**XIV Sagar Uzta 2014.
Prentsa dossierra.**

Kontaktua:

Leire Alkorta
943 550 575
info@sagardoarenlurraldea.com

www.sagardoarenlurraldea.com

XIV. Sagar Uzta, sagarraren jaia Astigarragan

Sagar Uztak hamalagarren edizioa beteko du aurten, eta urteroko moduan, tolaletako lanen hasiera ospatuko du, azarora bitartean luzatuko den lana.



Sagar Uzta jaiaren jarduera nagusiak **irailaren 25, 26, 27 eta 28an** ospatuko dira jende guztiarentzako prestaturiko eta sagarraren eta sagardoaren kultura oinarrituriko jarduerekin.

Aipamen berezia merezi dute Sagar Uzta jaiaren parte-hartuko duten Astigarraga eta inguruko talde eta sektore ezbedinek: Sagarduneko bazkideak, tabernak, jatetxeak, bertako baserriak, enpresak, talde kulturalak, profesionalak, babesleak, bolondresak, etb...

Festan ez galtzekoak:

1. **Sagarraren azokan** buelta bat eman eta sagarren erakusketa, herriko baserriaren produktuen salmenta eta saski, txertaketa, etab.-en erakustaldiak ikusi.
2. Edalontzi bat erosi eta sagardo ezberdinen **sagardo dastaketaz** gozatu.
3. **2014 uztako lehen muztioaren elaborazio** prozesu tradizionala ikusi: sagar biltzea, jotzea eta zanpatzea.
4. 2014 uztako lehen muztioarekin **topa egin**.
5. Haurrak **animatu** sagargintza proban.

Berrikuntzak:

1. Santiagomendin zeharko sagardotegien arteko **"I. Sagardobide Erronka"** errelebo proba. Aurten parte-hartuko duten sagardotegiak hauek dira: Alorrenea, Astarbe, Gurutzeta, Petritegi, Zapiain eta Zelaia.
2. **"Sagar motak ezagutuz"** Santiagomendiko Sagardo Bidean zeharko familiarteko mendi-buelta, bertan Santiagomendiko sagastietako sagar mota ezberdinak ezagutu eta dastatzeko aukera izango delarik.

Informazio gehiagorako: www.sagardoarenlurraldea.com

Egitaraua



Aurreikusitako egitaraua honakoa da:

Osteguna, irailak 25

19:00-21:00 PINTXO-POTEA Astigarragako tabernetan. Sagarren eratorriekin egindako pintxoak emango dira.

Ostirala, irailak 26

19:00 EUSKAL HERRIKO SAGARREN KATA GIDATUA Astigarragako Roxario Jatetxean*.

Larunbata, irailak 27

09:30 "SAGAR MOTAK EZAGUTUZ", Santiagomendiko Sagardo Bidean zeharko mendibuelta familian*.

Igandea, irailak 28

SAGARRAREN JAIA Foru enparantzan.

09:00 I. Sagardobide Erronka-ren irteera. Santiagomendin zeharko sagardotegien arteko errelebo proba.

10:30-12:00 "Sagardogintza gure baserrietan" erakusketa frontoian.

10:30-12:00 Sagar tarta lehiaketarako tartak entregatzea frontoian**.

10:30-12:00 VII. Sagar Uzta Argazki Rally Digitalean izen-emateak frontoian**.

11:00-13:00 Gazta dastaketa gidatua*.

11:00-13:30 Haurrentzako tailerrak eta jolasak.

11:00-14:00 Sagarraren azoka:

- Sagarren erakusketa, dastaketa eta salmenta.
- Sagardo dastaketa.
- Saki, txertaketa, etb.-en erakustaldiak.
- Herriko baserritarren produktuen salmenta.
- Muztio dastaketa herrian zehar karreto barrika eta trikitilariekin.

11:00 2014 uztako lehen muztioaren elaborazioa. Sagar biltzea, jotzea eta zanpatzea.

12:30 Sagar dantza eta kirikoketa.

13:00 Txalaparta eta urteko lehen muztioaren dastaketa.

13:30 Haurrentzako sagargintza proba.

14:00 Sari banaketa.

14:30 Herri bazkaria Gure Izarra elkartearen.

* **Izen-emateak:** 943 550 575 / info@sagardoarenlurraldea.com

** **Oinarriak eta oharrak:** www.sagardoarenlurraldea.com/sagaruzta

2014ko sagarraren heldutasunaren indizeak aste bat edo bi aurreratu dira iazko urtearekin alderatuta

2014 uztako sagarraren heldutasunaren egoera aste bat edo bi aurreratu da iazko urtearekin alderatuta. Eskualdeen artean ekoizpena desberdina da, baita sagastien baitan ere. Bertan frutarik gabeko barietateak ikus daitezke eta ondoan sagar gehiegi dituzten barietateak.

Iraila hasieran eta azken urteetan bezala, Gipuzkoako sagasti ezberdin batzuetan kontrol bat egin zen, sagarren egoera jakin ahal izateko.

Honetarako, Gipuzkoako zenbait sagasti jarraitu ditugu, 14 barietate kontrolatu dira: Aritza, Errezila, Gezamina, Goikoetxe, Manttoni, Moko, Mozolua, Patzolua, Txalaka, Udare Marroi, Urdin, Urtebi Haundi, Urtebi Txiki eta Verde Agria.



Orokorrean, **2014ko iraileko lehenengo hamabostaldian**, sagastietan azaldu diren zenbait puntu bereizi ditzakegu:

- Barietatez barietate eta sagastiz begiratu ezkerro, ezberdintasun nabarmenak ikus daitezke
- Azukre maila begiratuta, aurtengo urteak, batzaz beste 10,2 °Brix du. Azken hamar urtetako datu baxuena da. Ziur aski jasan dugun uda heze eta freskoagatik.
- Almidoiaren erregresioa 3,4ko indizean dago, hau da, 2012 eta 2013ko baino altuagoa.
- Heldutasun datuak ikusita (almidoiaren erregresioaren arabera) Goikoetxe barietate kenduta, 3 barietate talde ikus daitezke:
 - Aurreratuenak: Aritza, Mozolua, Patzolua y Gezamina.
 - Erdikoak: Urtebi Txiki, Txalaka, Urtebi haundi y Udare Marroi.
 - Atzeratuenak: Verde Agria, Urdin, Manttoni, Moko y Errezila.
- Sagar portzentai garrantzitsu bat arjoarengatik kaltetua izan da.

Aitor Etxeandia Azpiazu – Sagarlan S.L.
Fruitugintzan aholkularia

“I. Sagardobide Erronka” proba

Mundarro Kirol Elkartearekin elkarlanean, aurten “I. Sagardobide Erronka” ospatuko da, Santiagomendin zeharko sagardotegiaren arteko errelebo proba.



**I. SAGARDOBIDE
ERRONKA 2014**
ASTIGARRAGA
IRAILAK 28 DE SEPTIEMBRE
09:00ETAN FORU PLAZAN

ERRELEBO PROBA:
 6 talde (Alorrenea, Astarbe, Gurutzeta, Petritegi, Zapiain eta Zelaia) bakoitza 2 neska eta 2 mutil ez osatua.
 Probaren azalpenak:
 - Itzularen hasiera eta amaiera Foru Plazan izango da.
 - Irteera ordua: 09:00etan.
 - Erreleboaren ordena:
 1. itzulia: mutilak bizikletan.
 2. itzulia: neskak korrika.
 3. itzulia: neskak bizikletan.
 4. itzulia: mutilak korrika helmugara iritsiera.

Informazio web gunean:
www.sagardoarenlurraldea.com

Proba honetan parte hartuko duten sagardotegiak hauek dira: **Alorrenea, Astarbe, Gurutzeta, Petritegi, Zapiain eta Zelaia.**

Talde bakoitza 2 neska eta 2 mutilez osatua egongo da eta erreleboaren ordena honakoa izango da:

- 1. itzulia: mutilak bizikletan.
- 2. itzulia: neskak korrika.
- 3. itzulia: neskak bizikletan.
- 4. itzulia: mutilak korrika helmugara iritsiera.

Data: irailak 28.

Ordua: 09:00etan.

Irteera puntua: Foru Plaza (Astigarraga)

Iritsiera puntua: Foru Plaza (Astigarraga)

Iraupena: 02:30 ordu inguru.



“Sagar motak ezagutuz” mendi-buelta

Josu Osarekin batera, Santiagomendiko Sagardo Bidean zeharko mendi-buelta egingo da familian, eta haur nahiz helduek, Santiagomendiko sagastietan dauden sagar barietate ezberdinak ezagutu eta dastatzeko aukera izango dute.



Sagar mota ezberdinak ezagutuaz eta naturaz gozatuaz familiarrean gozatzeko jardura dibertigarria.

Data: irailak 27.

Ordua: 09:30etan.

Tokia: Foru Plaza (Astigarraga)

Iritsiera ordua: 13:00.

Izen-emateak: 943 550 575 / info@sagardoarenlurraldea.com

Gazta dastaketa gidatua haur eta helduentzat

Ordiziako D'Elikatuz Zentroa eta Idiazabal Gaztaren Interpretazio Zentroarekin elkarlanean, Idiazabal gaztaren dastaketa gidatua ospatuko da Sagar Uztar egunean Astigarragako Foru Plazan.

Sagardoaren Lurraldea eta Idiazabal Lurraldearen arteko harremana sendotzeko eta bi lurralde hauetako kultura eta tradizioan oinarrituriko dastaketa gastronomikoa eskaintzeko helburuz, irailaren 28an, igandea, Idiazabal gaztaren dastaketa gidatua egingo da XIV. Sagar Uztaren barruan.



Dastaketa hau, haur eta helduei zuzendua dago eta usaimena, ukimena eta dastamenaren zentzumenak esnatu nahi ditu gazta ezberdinak dastatuz eta bakoitzaren ezaugarriak aztertuz modu didaktiko eta ludikoan.

Irailak 28

11:00-11:30: 8-10 urteko haurrak.

11:45-12:15: 10-12 urteko haurrak.

12.30-13:00: Helduak.

Izen-emateak: 943 550 575 / info@sagardoarenlurraldea.com

Euskal Herriko sagarren dastaketa gidatua



Irailaren 26an Euskal Herriko sagar barietate ezberdinen dastaketa gidatua egingo da Astigarragako Roxario Jatetxean Josu Osa eta Egoitz Zapiain-em eskutik.

Bertako sagar moten ezaugarri organoleptikoak ezagutzeko helburuz, sagar garratzak, mikatzak eta gozoak dastatuko dira, sagar barietate ezberdinak ezagutzeko aukera izango delarik.

Bestalde, sagar barietate horien muztioak ere dastatuko dira eta sagarrekin egindako Gorrotxategiren azkenburukoa.

Izen-emateak: 943 550 575 / info@sagardoarenlurraldea.com

Antolatzailea: Sagardun Partzuergoa

Sagardun Partzuergoa 2003. urtean sortu zen entitate publiko-pribatua da. Gaur egun Sagardoetxea, Euskal Sagardoaren Museoa kudeatzen du, Sagardo Berriaren Eguna eta Sagar Uza ekitaldiak antolatzen ditu, sagardoaren kultura sustatzen du esperientzia turistikoa ezberdinen bitartez eta "Sagardoaren Lurraldea" marka kudeatzen du.

Sagardun Partzuergoaren osaketa:

Administrazioa:

Astigarragako Udala

Talde kulturalak:

- Astigar E.O.E.
- Goldea Herri Kirol Batzordea
- Gure Izarra
- Mundarro Kirol Elkarte
- Norberto Almandoz Musika Eskola
- Xagu Xar
- Zipotza kultur Elkarte

Sagardotegiak:



Kolaboratzaileak:

Astigarragako baserriak, Erbitegi Etxeberri Kirikoketa Taldea, Astigarte, Roxario eta Ibai-Lur jatetxeak, Ikatza, Bukoi, The Robin, Sagartxo, Irati, Kupela, Txotx, Txiki, Ekaitz eta Pastoriza tabernak, Calderería Laubide, Marisol Yaben, Pastain Argazkiak, Josu Osa, Behemendi, D'Elikatuz eta bolondres lana egiten duten guztiak.

Babesleak:



SAGARDOAREN LURRALDEA

el territorio de la sidra

Kale Nagusia 48
20115 Astigarraga - Gipuzkoa
t: 00 34 943 550 575
f: 00 34 943 331 311

info@sagardoarenlurraldea.com
www.sagardoarenlurraldea.com
www.facebook.com/sagardoarenlurraldea
twitter: @sagarlur

SAGARDOAREN
LURRALDEA

txotx.info



Sagardoetxea

Sagardobenda



SagardoPedia

SAGARDUN
SAGARDOAREN BIZITZA ASTIGARRAGA

EUSKADI

TURISMO
GIPUZKOA
HAIN TXOTX, HAIN HANDES
HAIN PEQUENA, HAIN GRANDE